

# JEAN ETCHEPAREREN IDAZKERA

*AMAIA ITURBIDE*

---

**B**izkaiko Foru Aldundiak 1989an eman zidan bekaren bidez burutu nuen Jean Etchepareren idazkerari buruzko azterketa estilistikoa. Hurrengo orrietan lan horren emaitzaren laburpena plazaratzen dut.

Lana egitean idazlearen idazlan guztiak erabili baditut ere, idatzi zituenen artean bi liburu nagusienak, *Buruxkak*, denetariko gaiak ukitzen dituen artikulua-bilduma, eta *Berebitez*, bidai liburua izango dira ardatz.

## INPRESIONISMOAREN BEGIRADA

Bere obra osoa irakurtzerakoan adiera pizten duena inpresionismoaren eragina da. Idazlea detaile nabarmenetan ohartzen da; deskribatu beharrean, iradoki egiten du, erliebea sortuz, gainerantzeko xehetasunak hondoa aienatu eta lehen planoan zehatzenak, nabarmenenak zizelkatuz. Irakurleak errenkadan doazen detaileak bildu egingo ditu era sintetikoan, lauki batean bezala.

Menturazkoa suertatzen da nola bi idazlerentzat motibo bera gai izan daitekeen beren obra literarioak garatzeko unean. Etcheparek *Berebilez*-en, kotxea dela eta, garraiobide honen mugimendua aitzakia dela, errealitatearen ikusmolde zatitua eskaintzen digu koadro inpresionista eta azkarren bidez. Lizardik ia-ia garai berean “Bultzi-leiotik” poematxoan, trena dela eta, bidaian zehar leihoan barrena urrundik jasotzen dituen paisaiaren sekuentziak aitzakia direla, bere bizipenak adierazten dizkigu. Bi idazleontzat, baita, izadiarekin daukaten etengabeko maitasun-harremanetarako bidaia-bideak begi-bihotzak dira, beharbada, zirrarak bizitzeko gorputz- -atalok besteak baino emanagoak direlako, ikusminagoak, minberagoak: dauzkagun leihorik samurrenak.

Begirada inpresionistaren apaingarri beharrezkoen gisa, irakurketan zehar, han-hemenka zipriztinduta, esklamazioak aurki daitezke, funtzio emotibo-fatikoa betetzen dutenak. Baina, batez ere, hiru bide aukeratu ditu inpresionismoaren irudia zizelkatzeko: matizazioarena, pertsonifikazioarena eta elipsiarena.

Lehenengoari dagokionez, alde batetik, kolorearen ñabar-dura guztiak bilatzen dituen adjektibazio zehatzean gauzatz du; bestetik, estetizismoaren arretagatik aukeratu duen adjektibazioan.

Pertsonifikazioa paisajea bereganatzeko tresna da. Paisajea begietan bildu eta esku-ahurretan oratzen du, harekin elkarrizketa antzeko bat sortuz, kanpoko

paisajearen eta egilearen barne-paisajearen gogo-aldarteak erritmo beretsura uztartzen direlarik.

Elipsia, maila askotara hedatua (artikuluaren, aditzearen, deklinabidearen...), oso errekurtsio baliagarria zaio, bai narrazioa bizkortzeko, bai sentimenduak tinkotasunez adierazteko, inpresionismoaren presentzia bermatuz; eta ez dugu ahaztu behar inpresionismoaren funtsa subjektibismoa dela, aurretik aukeratutako angelu batetik ikusten bait da errealtatea. Horretaz gain, elipsiak irakurketa zail egin dezake.

## IRUDI PINTORESKOA

Inpresionismoarekin batera pintoreskismoa ere agertzen da. Deskripzioak estilo pintoreskoz pintzelatzen ditu, hots, paisajeak, pertsonak, eta gauzak era bizi, atsegin eta "jator" batez aurkezten ditu. Erakustea adieraztea baino biziagoa da eta, hain zuzen ere, deskripzio pintoreskoak nabarmena dena bilatzen du, irakurlearen irudimenean tinko gelditzeko helburua duelako. Horretarako detaile deskriptibo-plastikoak erabiltzen ditu, ondo asmatutako konparazio adierazkorrak eta, esan nahi dena nabarmentzeko, antitesi eta hiperboleak.

Bizitasunaz gain, pintoreskismoak ttipitasuna, politasuna eta afektibitatea azpimarratzen ditu. Hiru kualitateok erdi-esteko, alde batetik, deskripzioak askotan topikoak diren irudiez inguratzen ditu (adibidez, "etxe txuri, txiki, polit"arenaz) eta, bestetik, idazkerari soinu goxoa ematen dioten fenomeno fonetikoez baliatzen da (bustidura adierazkorraz, -tsu atzizkiaz, hots-hitzez, atzizki txikigarriez...).

Orain arte esandakoaren arabera, hizkuntzari dagokionez, inpresionista da, eta horrek munduaz duen ikuspegia inpresionista dela esan nahi du. Aurrean duen errealtatea dela eta, euskal literaturaren historian sarritan gertatu den bezala, bakarrik detaile politez ohartzen da; ez, ordea, itsusiez. Euskal Herrian bi mundu egon dira aurrez

aurre, batez ere, joan den mendearen azken urteetan eta honen hasieran gertatu den industrializazioa eta gero: bata, tradizionala, tradizionalki euskalduntzat jo izan dena, zeinetan “baserria, txikia, txuri-polita” (eta honelako konotazioak dituzten hauen antzeko beste elementuak) hitz klabeak suertatu diren definitzerakoan; eta, bestea, industrialia, gizon beltzena, zakarra. Pentsamolde honek zer adierazten du? Ez duela soil-soilik gauza politak eta itsusiak sailkatzen, baizik eta berarentzat euskal errealitatea bakarrik polita denarekin identifikatzen dela, bestea alde batera uzten duelarik. Eta nahiz *Berebitez*-en automobila azaldu, liburuari darion modernitatea faltsua da. Belaunaldiko beste idazle batzuen gisara, euskal errealitate erdia erakusten du, berarentzat osoa dena. Errealitatea ikusteko modua, bada, bere ideologia abertzaletik datorkio. Eta honekin loturik, inpresionismoa eta pintoreskismoa (azken ezaugarri honek topikotasunarekin zerikusi handia duelarik) kate bereko begiak direla baieztatu daiteke.

## NITASUNAREN INDARRA

Beste bereizgarri bat subjektibismoa da, bere lan nagusietan, *Buruxkak* eta *Berebitez*-en ikus dezakegunez. *Buruxkak*-en, garai hartako eta oraingo Ipar Euskal Herriko kazetariak bezala, kazetaritza-artikuluetan eritzi pertsonalak tartekatzen ditu.

“Eskualduna” aldizkarian idazten hasi zenean, Hiriart Urruty, Iparraldeko kazetaritzaren ezaugarriak landatu zituen lehenengo kazetaria, irakasle izan zuen. Baina nire eritziz, hain zuzen ere, puntu literarioari gagozkiolarik, eta *Zezenak errepublikan* liburuan irakurri ditudanetan gidaturik, Hiriart-Urrutyren idazkera kazetaritza-estiloari dagokiola esan dezaket, eta ez duela Etcheparerenak duen xarma literarioa.

Izan ere, Iparraldeko kazetaritzaren tradizioetik edan zuen; baina ez zen puntu honetan gelditu, baizik eta bere estilo propioa umatzen joan zen. Hauxe da, ondo burututako lanaren ondorioz, geroan utzi duen emaitza. Nire irudiko, gaur egun Iparraldeko idazleek daukaten hizkuntz harrobia idazle honi zor diote. Hor daukagu Hegoaldeko literatur sarietan hain oihartzun luzea jaso duten Xipri Arbelbideren lanak, zeinetan Jean Etchepareren eraginak bere zama bait du.

Pío Barojaren erreportaiak hartu ahal ditugu Hegoaldean (eta Espainian) jazotzen zenaren erreferentziatzat. Kazetaritza-erreportajea tindura duten bi eleberriok aukeratu ditut, *El cabo de las tormentas* (1932) eta *Los visionarios* (1932), *La selva oscura* deritzon trilogiarenak, beraietan idazkera pixka bat aztertzeko. Eta ondorio gisa, esan dezakegu, nahiz eta bi eleberriok hirugarren pertsonan idatzita egon, Pío Barojak bere eritziak isladatzen dituela, lekukoek kontatu ziotena bere uste pertsonalean biltzen duela, erreflexio urrunak irudituaatik ere.

Jean Etchepare, Pío Barojaren garaikidea zen aldetik, kazetaritza egiteko modu subjektibo honetan oinarritu zela pentsa daiteke, nitasuna are gehiago markatzen duelarik.

*Berebitez*-en, egilearen nitasuna ahots garrantzitsua izango da. Kazetaritza estiloarekin gertatu zitzaion bezala, bere bidai liburua ere garaian zeuden joera literarioen barruan sartu ahal dugu. Hor dauzkagu bidai liburukide bezala, Pío Barojaren *Desde la última vuelta del camino* (1944-49) liburutik “La expedición de Gómez” deritzon kapitulua, Ciro Bayoren *Lazarillo Español* eta euskaraz idatzitakoen artean, Agustín Anabitarteren *Aprika-ko basamortuan* (1961).

## KAZETARITZA-ESTILOA BURUXKAK-EN

Izpiritu jakinminaren ispilu, denetariko gaiak (hautzaroa, euskara, medikuntza, irakaskuntza, euskal sinismen eta ohiturak...) lantzen dituen artikulu-bilduma da *Bu* -

*rukkak* (1910). Eta hain zuzen ere, arlo honetatik datorkio interesa, ordurarte idatzi ez ziren gaiak naturaltasunez jabetzean eta irakurleari heleraztean.

Gaiak erabiltzean, ezaugarri estilistiko hauek agertzen dira:

- Zehatza da, adierazteko unean azkartasuna eta bizitasuna dira nagusi; bi kualitateok errealitateaz duen ikuspegi inpresionistaren ondorio dira. Inpresionismoa, maila askotara (konposizio, artikulua, deklinabidean...) hedatzen den elipsian eta adjektibazioaren matizazioan gauzatzen da.

- Matizazioa, zehaztasuna bilatzen duenaren seinale: Gauzak erarik doinean adieraztea gustokoa zaionez, ez du burura datorkion lehenengo gauza idazten eta horrela hizkuntzaren artisaubilakatzeko da, hitzak, esamoldeak eta, batez ere, hain nabarra den adjektibazioa barnetik landuz. Matizazioa dela eta, hiztegi aberatsa du. Denborazko adberbioen ugaritasunak, bestalde, urratsez urrats markatzen du diskurtsoa.

- Narrazioan dasta ditzakegun imajina eta metafora ugariak: kolorearen eta indarraren alde dihardute lanean.

- Erritmo narratiboaren aldaketarako esaldi laburrak eta luzeak (askotan hiperbatonaren bidez zailduak) tartekatzen dituen bezala eta tonu narratiboaren aldaketarako, hizkeraren mailak —kolokiala eta kultua— uztartzen dituen bezala, ekintza gertatua izan arren, garaiari gaurkotasuna emateko, aditzen lehenaldia orainaldiarekin nahasten du, guzti hau giro orekatsu baten mesederako.

- Berri bat azaltzerakoan, Etcheparek ordena bat jarraitzen du, eskema bat, irakurlearen adiera erakarri eta mezua errezagotzen helerazteko.

- Nitasunaren agerpena: ez ditu gertaerak datuz datu biltzen, askoz ere subjektiboagoak dira, informazioa eritzi pertsonalez janzten du eta.

Ezaugarriok kontutan hartuz, Jean Etchepareren kaze-  
taritza-estiloa literarioa dela esango nuke, ez informatiboa.

## DESKRIPZIOA BEREBILEZ-EN

Liburua irakurri ahala, deskripzioei lotzen bagatzaizkie, badago nabarmentzen den irudi bat, topiko baten errepikapena: “etxe xuri, pollit, txiki”arena. Euskal literaturaren historian zehar eta ideologia abertzalearekin elkar loturik joan den topiko honek, beste idazle garaikideen artean berebiziko indarra izan zuen; adibidez, hor daukagu Jean Baptiste Elizanburu, Sarako poeta delikatuaaren ahapaldi ospetsua, “Nere etxea edo laboraria” deritzon olerkiarena eta “Ikusten duzu goizean” esanez hasten dena; edo, baita ere, J.B. Daskonagerreren *Atheka gaitzeko oihartzunak* eleberrien zenbait pasarte.

Errealitateaz duen irudiaren ondorio den “etxe xuri, pollit, txiki” topikoarekin batera, badaude testuari nolabaiteko giro urruna, mehea, dibujatzen laguntzen dioten beste bi elementu: arkitekturaren erreferentzia eta Greziarekiko mirespena.

Egun bakar batez Nafarroa eta Gipuzkoan zehar egiten duen bidaia honetarako ez du deskripzio estatikorik erabiltzen, mugikorra baizik, kotxearen mugimenduen erritmora egokituta. Narrazioak, horrela, bizitasunaren eta azkartasunaren alde jotzen du; honek inpresionismoaren teknikarekin badu zerikusirik, kotxearen lasterketaz oharturik, begiari lehenik jotzen diona pintatzen duelako hitzen bidez; horrela, kaja txinatarrekin bezala, bata bestearen barruan daudelarik, Jean Etchepareren koadro deskriptiboetan puntu batek beste batera darama. Hor daukagu, alegia, lekuzko adberbioak, deskripzioaren elkar puntuak bezala funtzionatzen dutenak, mugimenduaren eragile sintaktikoak izateaz gain.

Deskripzio topikoak eta mugikorrak erabiltzeaz aparte, deskripzio inpresionistek ere bere lekua daukate.

## HIZKERA-MAILAK: KOLOKIALA ETA KULTUA

Lizardik Unamunori eskainitako poema zoragarri hartan bezala, Jean Etcheparek ere euskal hizkuntzari hegoak ipini nahi izan zizkion; horretarako eta horregatik, euskara ordu-rarte erabili ez zen gaietara lerratu zuen luma eta, hizkerari dagokionez, maila kolokiala eta kultua uztartu.

XX. mendearen hasieran, Ipar Euskal Herriko literaturan herrikoitasuna izango da nagusi; idazleek herriaren pentsamoldeak eta hizkera transkribatuko dituzte. Jean Etcheparek herrikoitasunari gogotik eutsiko dio, baina, gizon kultua zen aldetik, euskal hizkuntza goimailara igoko du. Horretarako erregistro kolokiala (errefrauak eta balio unibertsaleko sententzia kutsuko esaldiak, esamoldeak, metonimiak, metafora lexikalizatuak eta kolokialak, konparazioak, hiperboleak) eta kultua (konparazio eta metafora literarioak, nahiz eta batzuetan topikoak izan) bat egiten ditu.

## HIZTEGIAREN BEREZITASUNAK: HITZEN FORMA ETA ESANAHIA

Idazlanetan, mendearen hasieran osatzen ari den “navarro-labourdin littéraire” (Lafitteren gramatikak dakarren terminologiaren arabera) deritzon euskalki literarioa erabiltzen du. Baina ez zen horretan gelditu: euskal dialektologia erakargarria zitzaion, hitzak hemendik eta handik biltzea, eta, horri, nahiz eta euskalki batean idatzi, idazle baten lanabesa den hizkuntzaz den bezainbatean, Euskal Herriaren barruko muga gainditu zuela esan genezake lasai asko. Ez ziren gutxi bere hizkeraren maisutasuna azpimarratu zutenak, hala nola Lafitte eta Piarres Charritton.

Bestaldetik, gizon argia zelako, ikasia eta are gehiago ikasteko prest zegoena, euskal hizkuntzaren diagnostikoa, aurreritirik gabe egina zeukan. Bazekien euskalkiak ez



direla biziki aurreratzen, hitzen kopuruari dagokionez, nahikoa laburrak bait dira. Euskalkiak banatuta, bakoitzak bere tokiko euskara aberatsa edukiagatik ere, egoera dextente ahulean zeudela ikusi zuen, baina, baita ere, euskalkiak batuz gero, errekurtsio gehiago edukiko lituzkeen hizkuntza indartsuagoa lor zitekeela. Euskara batu horrek, batez ere, euskaldunen ahozko komunikazioari baino, idatzizkoari irtenbidea aurkituko lioke. Euskalki batean idatziriko liburu batek batuaz idatziriko batek baino harrera mugatuagoa edukiko luke, euskalki horretako irakurlego potentziala txikiagoa izango bait litzateke. Beraz, lehenengo unetik (idea hauek azaltzen dituen atala 1923. urte ingurukoa da) euskara batuaren alde jarri zen. Hegoaldean euskara batuaren auzia pil-pilean zebilen; hemengo euskaltzale batzuek, Azkue buru zutelarik, gipuzkera osotua proposatzen zuten. Jean Etcheparek euskalki bakar baten eredu horrela, bapatean, ezartzeari ez zeritzon egoki. Ez zen goitik behera hartutako erabaki horren zale.

Euskararen batasunerako plangintza bat proposatzen du. Plangintzaren ideia nagusiak honela labur daitezke: hizkuntza batek batzeko behar duen bilakaera berezkoa izan behar du, ez bortxazkoa; horretarako, «hizkuntzaren aberasteari jo lehenik, herrialde bakotzak bertzeer eskas duena maileatuz, herrialde guzietako gozoak elgarretara bilduz, agertuz, eroapenekin ezagutaraziz»<sup>1</sup>; aditza eta ortografiari buruzko arauak Euskaltzaindiaren esku egongo lirатеke. Bere ustez, nahikoa litzateke aldizkari bat (“birrargi” hitza darabil) Euskal Herri guztiarentzat. Aldizkari hori Euskaltzaindiak hautatutako idazle onen lanez osatuta egongo litzateke, zeren «munduko mintzai guzietan idazleak dira berdintzale, apaintzale ere bai»<sup>2</sup>; baina idazle horiek ez lirатеke baserritarrez ahaztu behar, «baserritarra baita, ooren buruan, den gutien bat lagunduz geroz, mintzai egilerik hoberena. C'est un artiste incomparable en fait de langage, mais à la condition d'être soutenu et guidé par l'élite»<sup>3</sup>. “Birrargi” horretan, batzuek besteen lanak irakurri eta ikasitakoan, bere hizkera apaindu beharko lukete, eskas lituzketen hitzak hartuz. Idazleek hizkuntza arrotzetatik, batez ere espainoetik eta

frantsesetik, gure auzoak bait dira, maileguak hartu behar-ko lituzkete, gauzak adierazteko zehaztasuna zorrozteagatik.

Jean Etcheparek euskararen batasunerako uste osoa zeukan kazetaritzan, Lizardik ere edukiko zuen bezala. Gerra aurreko poeta lirikoak, *Itz-lauz*-en “Bi milloiez zer egingo, euskararen alde?” deritzon kapituluan, kazetaritza euskara berpizteko bide baliotsua delakoan, “Erri-lan” izeneko bazkuna aipatzen du, bere antolamendua nolakoa den azaltzen, eta gero proiektuak argia ikusteko beharko lituzkeen aurrekontuez betetzen dizkigu orrialdeak.

Jean Etchepareri, euskal hizkuntzaren ezagutza sakona edukitzeaz aparte, euskararen nondik norako guztiak biziki axolatzen zitzaizkion. Gizon burutsua zela frogatu zuen, beste gaietan bezala, euskara batuaren auzian, errotik heldu bait zion arazoari, irtenbidea erroan bilatuz, eta ez adaske-tatik iheska ibiliz noraezean eta askotan bazterrak nahas-ten, euskaltzale batzuek, tamalez, egin zuten bezala.

Jean Etcheparek, bere obra guztian zehar ikusi ahal denez, euskal hizkuntza zaindu eta hitza maitatu egiten du. Eta helburu horretarantz abiatzeko, bi puntu lantzen ditu gehienbat: hiztegi-gintza eta atzizki-gintza.

Lehenengoari dagokionez, hiztegiaren zailtasuna da ohar-garriena; ordurarte gutxitan —edo inoiz ez— erabilitako gai-ak bait dakarzkigu eta mintzairak esandakoari egokitzen bait zaio. Hiztegi aberatsa du, onomatopeian, metaforan eta parafra-sietan oinarritutako esamoldeetan edo hitz-jokoetan estima daitekeenez. Zailtasuna neologismoen pre-sentziarekin areagotzen da (batez ere, bere azken lanean, *Berebileren*, hegoaldera egin zuen bidaiaren ondorioz, Eu-skal Herriaren alde honetan garbizalekeriaren auzia gori-go-rian bait zegoen); baina, kontrapisuz sinonimoak jartzen di-tu.

Atzizki-lanetan ere trebea da: hitzak sortzeko baliabide aparta zaio, eta hizkuntzarekin jolastu egiten duela dirudi, atzizkiak substantibo edo adjektibo bihurtzen dituenean nahiz atzizkiak substantibotik banatzean.

## MORFOSINTAXIAREN ALDERDIRIK NABARMENENAK

Etchepareren lana orokorki begiraturuz gero, esaldi nagusi adinako menpeko esaldi erabiltzen dituela esango nuke, eta esaldi luzeak laburrekin tartekatzen. Horrela, inpresionismo-kutsua duten deskripzioetan esaldi laburrak, zalutasunaren sinbolo, eta puntuazio-zeinu asko erabiltzen dituen bitartean, kontakizunean murgiltzerakoan, eraikuntza sintaktiko luze eta bihurriak aurki ditzakegu. Baina Jean Etchepareren sintaxia, oro har, zaila dela esateko hurrengo arrazoiak emango ditut:

- Euskaraz normalean elkarrekin, bata bestearen ondoan, joan behar duten elementuak banatzen ditu, haien artean beste batzuk sartzen dituelarik.

- Batzuetan, menpeko esaldi asko pilatzen ditu esaldi nagusiaren inguruan eta, gainera, esaldi nagusiaren aditza eliptikoa da.

- Batzuetan menpeko esaldia eta esaldi nagusia banatuta daudela dirudi.

- Asinetona erabiltzen du. Honek arintasuna ematen dio testuari. Askotan erabiltzen da kazetaritza-hizkeran.

- Aditz nagusia hasiera-hasieran jartzean, irakurketa zaildu baino irakurlearen partetik arreta handiagoa eskatzen du, narrazioaren haria erdibidean galtzen delako.

- Hiperbatonaren presentzia bere idazkeraren beste ezau-garrietako bat da, hitz bat besteen gainetik nabarmentzeko eta euskararen ahalbideekin esperimentatzeko ere erabilia. Era desberdinetan erabiltzen du hiperbatona:

- Genitiboa, laguntzen duen hitzetik urrunerazten du.

- Batzuetan, “gehiago” eta “gehien” konparatiboak, mugatzen duten izenaren aurrean jartzen ditu Etcheparek, nahiz Lafitte-k bere *Grammaire basque*-n hauxe adierazi: «“Gehiago”, ‘plus’ est un comparatif qui se met toujours après le nom qu’il détermine, et il se décline à l’indéfini»;

«Gehien», ‘la plupart’, est un superlatif qui suit la déclinaison définie et se place, comme adjectif, après le nom qu’il accompagne». Beraz, Etchepareren erabileran, batzuetan adjektiboak barik, adberbioak dirudite.

- Aditzei dagokielarik, aditz-egituraren ordena normala batzuetan besteetan baino gehiago bortxatzen du; besteak beste, kasuok iruditu zaizkit azpimarragarriak, denak partizipioa eta laguntzailea lekuz aldatzearen ondorio:

- “Partizipioa + *behar* + aditz laguntzailea” egitura ohizko ordenean agertu beharrean, “laguntzailea + *behar* + partizipioa” ordenean agertzen da batzuetan.

- Aditz-erroa galdetzailetik urrun agertzen da.

- “Gerundioa + *ari* + laguntzailea” egitura zeharo aldatzen du batzuetan.

Sintaxiaz ari garenez, matizazioa sintagma ez-aurrerakoi-etan aurkitu ahal dugu eta hizkeraren freskotasuna, errepikapenetan (anaforan, erretrukeanoan, polisindetonean...). Hiztegian neologismoen eta sinonimoen artean lortzen zen oreka, orain esaldi luzeak laburrekin tartekatzean ikusi ahal dugu.

Aditzari dagokionez, darabilen hizkera bezala, baxe-nafarrerakoa da. Baina Iparraldeko euskarak eduki ditzakeen bereizgarriez gain, euskal aditz-sistemak eskaintzen dituen ahalbide aberatsez baliatzen da; eta, horrela, eguneroko hizkeran hizkuntzaren ekonomiagatik baztertutako aditz-forma batzuk erabili egingo ditu normaltasun osoz.

Ezaugarriekin bateratsu, badaude beste bi atal, azpimarratutako zailtasuna areagotu besterik egiten ez dutenak: aditz-kontrakzioak eta aditz sintetikoak. Lehenengoak ahozko hizkeraren eraginez edo erabiltzen ditu. Bigarrenei buruz, Jean Etcheparek maiz erabiltzen dituela azpimarratu behar da, Ipar Euskal Herriko hizkera arruntean nahikoa galduta egon arren. Jakina denez, adizkiok puntualtasuna markatzen dute eta narrazioaren ekintzari bizitasuna dakarkiate. Sarritan agertzeaz gain, ez dira arruntenak

(batzuetan, aditz bitxiak direlako eta, besteetan, nahiz eta aditz ezaguna izan, aukeratu dituen forma sintetikoak ar-raroak direlako), eta horrek zaildu egiten du irakurketa.

## AZKEN ERITZIA

Idazkera idazlearen nortasunaren ispilu delako susmoan oinarrituta, esango nuke Jean Etcheparek, jakinminak gidatutako gizon bitxia bait zen, bizitasunez zipriztindutako eta matizazioz zehaztutako prosa zaindu eta tinkoa utzi zigula.

1. *Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I Euskal Gaiak*, Elkar, Donostia 1984, 295 or.

2. Aip. lek., 299 or.

3. Aip. lek., 299-300 or.

